

## I - ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

**Diputatuen Kontseiluaren 286/2015 Erabakia, ekainaren 2koa, behin betiko onarpena ematen diona "Kudeaketa zuzentarau eta neurriak" dokumentuari, "ES2110022-ENTZIA" BGLko habitaten narriadura eta bertako espezieen eraldaketak ekiditeko**

Diputatuen Kontseiluaren azaroaren 18ko 632/2014 Erabakiaren bidez, hasierako onarpena eman zitzaizen "kudeaketa zuzentarauei eta neurriei": Horiek, ondokoak jasotzen dituzte, Eusko Jaurlaritzak lehendik onartutako kontserbazio helburuen ildotik: eremuak kontserbazio egoera egokian izateko neurri egokiak, habitat naturalen eta espezieen habitaten hondatzea ekiditeko neurri egokiak, hala nola aurretik Babes Bereziko Zona -BBZ- modura onartuz "ES2110022 – ENTZIA" Europar Batasunaren Intereseko Lekuaren (EBIL) izendapena bultzatu duten espezieei eragiten dizkieten aldaketak ekiditeko neurriak.

Erabaki horretako bigarren puntuan, onartu zen Batasunaren garrantzizko leku aipatu hori (BGL) kontserbatzeko eta bertako espezieen habitaten narriadura eta eraldaketak ekiditeko "Kudeaketa zuzentarau eta neurriak" agiriari entzunaldiko eta jendaurrean jartzeko izapidea igaroaraztea, bi hilabeteko aldia.

Entzunaldiko eta jendaurrean jartzeko aldia, agiriari buruzko oharra eta alegazioak aurkeztu dituzte honako administrazio, erakunde eta interesdun edo eragindako hauek:

- BASKEGUR Elkarte.
- Ángel María Baquedano Íñiguez.
- Natura Inguruneko eta Ingurumen Plangintzako Zuzendaritza. Eusko Jaurlaritza.
- Entzia eta Iturrietako Partzuergo Orokorra.

Ingurumen eta Biodibertsitate Zerbitzuak eta Mendi Zerbitzuak elkarlanean egindako 2015eko maiatzaren 25eko txosten bidez, ohar eta alegazioen edukia aztertu eta horiei erantzuna ematea erabaki zen, ondoren adierazten den bezala:

#### **Baskegur Elkarte**

Euskal Herriko zur ekoizleak eta basoginak ordezkatzen dituen elkarte horrek alegatzen du kontuan hartu behar dela KBE izendatzeak eta Entziako KBEren eragin eremuko jardura ekonomikoetan "Kudeaketa zuzentarau eta neurriak" izeneko agiriak duten eragina; batez ere, zura ekoiztea helburua duen basogintza jardueran. Horren harira adierazten du Europako 92/43/EEE zuzentarauek, habitat naturalak eta basa fauna eta flora kontserbatzeko buruzkoak, bere 2. artikulua 3. paragrafoan xedatzen duela "zuzentarau honen arabera hartzen diren neurriek kontuan hartuko dituzte ekonomia, gizarte eta kultura beharrak, bai eta eskualdeko eta tokian tokiko berezitasunak ere".

Ildo horri jarraiki, "1.1" alegazioan, elkarte horrek planteatzen du agiriak jasotzen duen 6.3 helburu operatiboa egokitzea helburu operatibo hori betetzeko bertan proposatzen den jarduerari (40.ari), alegatzaileak uste baitu helburua eta jardura ez datozela bat. Izan ere, helburu operatiboak hau adierazten du: "Bada kalkulu bat Entziako biologia aniztasunak duen balio ekonomikoarena, bai eta bertako ekosistemek eskaintzen dituzten ingurumen ondasun eta zerbitzuena ere"; 40. jarduerak, aldiz, hau dio: "ikerlan bat egin tresna honetan jasotzen diren

neurriak aplikatzeagatik errenta murrizten duten jarduerari eta errenta galera hori berdintzeko zenbateko eta bitartekoei buruzkoa”.

Inkoherentzia hori zuzentze eta 6.3 helburu operatiboa edukiz hornitze aldera, “Kudeaketa zuzentarau eta neurriak” izeneko agirian jarduera hau sartzen da:

Jarduera: “Entziako KBEko biologia aniztasunaren eta haren ekosistemek eskaintzen dituzten ingurumen ondasun eta zerbitzuen balio ekonomikoa aztertzea”.

Bestalde, esan Eusko Jaurlaritzaren eskumen dela helburuak zehaztea eta onartzea, 1/2014 Legegintzako Dekretuan, Euskal Herriko natura babesteko Legearen testu bateratua onartzen duenean, jasotako eskumenen arabera. Beraz, Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritzari bidaltzen zaio Baskegurren alegazio testua.

1.2, 1.3 eta 1.4 alegazioen bidez, Baskegurrek proposatzen du “Kudeaketa zuzentarau eta neurriak” izeneko agirian beste helburu operatibo batzuk sartzea edo dagoeneko jasota daudenak aldatzea. Aurrerago esan bezala, alegazio horien berri eman zaio Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritzari, Eusko Jaurlaritzaren eskumenen eremukoak baitira.

Baskegurren 1.5 alegazioan planteatzen da kudeaketa zuzentarau bat aldatzea; hain zuzen ere, basogintza lanak kiropteroen eta beste espezie kaltebera batzuen behar eta ezaugarri biologikoei egokitzeko: “Kiropteroen edo beste animalia espezie kalteberarik hautematen bada, basogintza lanak espezie horren biologia behar eta berezitasunei egokitu zaizkie” Hona hemen aurrekoa aldatuz Baskegurrek proposatzen duen testua: “Aztertu kiropteroen edo beste zeinahi animalia kalteberaren eta Entziako KBEren aplikazio edo eragin zona edo eremuko ohiko jarduera ekonomikoen, hala nola, basogintzaren (basoak onik zaintzeko eta bertakoak aprobetxatzeko lanak), arteko elkarreragina, bai eta zona horietan basogintza lanak beste sasoi batean edo beste era batean egiteko aukera ere”.

Baskegurrek planteatzen duen testuak proposatzen du zuzentzarauaren eremua zabaltzea eta beste jarduera ekonomiko batzuk ere har ditzala; hau da, ez jartzea arreta gunea espresuki basogintzan baino ez. Horren harira esan beharra dago zuzentarau hori, Entzian duen garrantzia dela eta, basogintza lanetara bideratu behar dela. Izan ere, “Kudeaketa zuzentarau eta neurriak” izeneko agirian jasotzen dira eragina duten beste jarduera batzuk (eraikuntza lanak, eraikinak, haitzuloetara txangoak...) helburu dituzten beste zenbait zuzentarau. Era berean, Baskegurrek sartzea proposatzen duen zuzentzaraua ez da hain zehatza 5.2 helburu operatiboari –kiropteroen populazio babestuari asaldura saihestea– dagokionez; eta, beraz, gaitzetsi egiten da alegazioa eta eutsi egiten zaio aztergai dugun zuzentzarauaren testuari.

Azkenik, onetsi egiten da Baskegurrek planteatzen duen “2.1 alegazioa” eta “Komunikazioa, hezkuntza, parte hartzea eta gizalegea” paragrafoa sartzen da, jendeak ikus dezan basogintza era jasangarrian egiten denean ingurumen onurak dakartzan jarduera dela. Hona hemen horren harira sartzen den jarduera berria: “Jendeari jakinarazi basogintza kudeaketa giltza izan daitekeela baso habitaten zaintza helburuak lortzeko”.

### **Eusko Jaurlaritzako Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritza**

Zuzendaritza horrek bere alegazioan adierazten du bat datozela 31 kudeaketa zuzentarau eta 5 jarduera arau eta beste erregulazio batzuekin eta, beraz, aldundiak onartu beharreko “Kudeaketa zuzentarau eta neurriak” izeneko agirian sartzea Eusko Jaurlaritzaren eskumen esparruan sartzea dela, apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Dekretuak, Euskal Herriko natura babesteko Legearen testu bateratua onartzen duenak, 22.4 artikuluan eta 22.5 artikuluen lehen paragrafoan ezarritakoarekin bat etorritz. Alegazio txosten horretan adierazten da, halaber, eskumen injerentzia diren kudeaketa zuzentarau eta neurri horiek bat datozela Eusko Jaurlaritzak alde aurretik onartutako ekologia informazio, araudi eta kontserbazio helburuei buruzko agirian jasotako erregulazio zehatzekin. Horiek horrela, eskatzen da ezaba daitezela behin betiko onartu nahi den agiritik kudeaketa zuzentarau eta neurri horiek.

Alegazio horri erantzunez, Diputatuen Kontseiluaren azaroaren 18ko 632/2014 Erabakiak, Entziako BGLko "Kudeaketa zuzentzarau eta neurriak" izeneko agiriari hasierako onarpena ematen dionak, adierazi eta arrazoitzen du "ENTZIA (ES2110022) Babes Bereziko Zonaren (BBZ) helburuak eta arauak" agiriak, Ingurumen eta Lurralde Politika Saileko sailburuaren 2014ko uztailaren 31ko agindu bidez alde aurretik onartutakoak, erregelamendu gehiegikeria daukala, kontserbazio neurriez gain, zenbait kudeaketa jarraibide eta kudeaketa neurri edo jarduera sartzen baititu, horiek definitzeko eta horiei onarpena emateko eskumena Arabako Foru Aldundiarena denean, 16/1994 Legearen, Euskal Herriko natura babestekoarenaren, testu bateratuaren 22.5 artikulua arabera. Horretan oinarrituta, erabaki horri "1. eranskina" gehitzen zaio. Eranskin horretan Arabako Foru Aldundiak, eta ez Eusko Jaurlaritzak, onartu behar duen kudeaketa neurrien eta jardueren zerrenda jasotzen da.

632/2014 Erabakiaren 1. eranskinean jasotako kudeaketa zuzentzarau eta neurri horiek, zenbaitetan, bereziki kudeaketari zuzendutako funtsezko formulazioekin, Arabako Foru Aldundiak hasierako onarpena eman zion agirira aldatu ziren. Eta, orain, Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritzak haien aurkako alegazioak aurkeztu ditu, aldundiak hasieran onartutako agiri hartan ezabatu ditzan.

Era berean, Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritzak, 2015eko maiatzaren 11n, Hirigintza eta Ingurumen Zuzendaritzari bidali zion ES2110022 "Entzia" eremua kontserbazio bereziko eremu izendatzen duen eta haren kontserbazio arau eta helburuak onartzen dituen dekretu proiektua onartu ondoren jasotako alegazio eta iradokizunei erantzuna. Eusko Jaurlaritzako zuzendaritza horrek, txosten horretan, berretsi egiten ditu Diputatuen Kontseiluaren 632/2014 Erabakiak alegatutako erregulazio gehienak; hala ere, badaude 12 erregulazio edo ezabatu edo aldatu egin behar direnak, eta, horrela, behinik behin, onartu egingo dira zati batean Arabako Foru Aldundiaren alegazioak.

Hortaz, argi dago Eusko Jaurlaritzak eta Arabako Foru Aldundiak ez dituztela berdin interpretatzen ez kontserbazio araudia eta helburuak ez kudeaketa zuzentzarauak eta neurriak edo jarduerak, nahiz eta egiaztatzen den badela hurbilketa bat ikuspuntu bien artean.

Horren harira, Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritzak alegatutakoarekin bat etorritik, "Kudeaketa zuzentzarau eta neurriak" izeneko agiririk ezabatuak izan daitezkeen Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritzak alegatzen dituen kudeaketa zuzentzarau eta jarduera gehienak ez datoz zehatz-mehatz bat Eusko Jaurlaritzak alde aurretik onartutako erregulazioekin, zeren eta Babestutako Natura Gunea kudeatzeko funtsezko aldaketak jasotzen baititu bere testuan. Alegatutako 31 zuzentzarauetatik eta 5 jardueretatik 19 zuzentzarauk eta jarduera batek funtsezko aldeak aurkezten dituzte.

Dena den, alegatutako 31 zuzentzarau eta 5 jarduera horien testua zorrotz aztertuta, Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritzaren alegazioaren zati bat onartze aldera, egokitu egiten da haietako batzuen testua, argi gera dadin zuzentzarau eta jarduera direla eta ez erregulazio Eusko Jaurlaritzaren zuzendaritza horrek alegatzen duen moduan. Ondorioz, behin betiko onarpena ematen duen agirian aldatu egiten dira 14 zuzentzarauen testua. Hona hemen horiek:

1. azken helburua / 1.1 helburu operatiboa:

— 3. zuzentzaraua, testu berria: "Organo kudeatzaileak emango dituen baimenetan baldintzak ezarriko dira, larre ertzetako basoen atzerakada ahal dela saihesteko eta zuhaitzen endurtzea edo ihartzea antzematen den bazkalekuetako egoera lehengoratzeko".

1. azken helburua / 1.2 helburu operatiboa:

— 1. zuzentzaraua, testu berria: "Basoak antolatzeko proiektuetan sustatuko da jabetza publiko zuhaitzietako eremu esanguratsuak mugatzea, bertan jarduerarik egiterik izan ez dadin".

– 5. zuzentaraua, testu berria: “Basoak leheneratzeko proiektuetan sustatuko da bertako habitateko landare espezieak erabiltzea”

2. azken helburua / 2.1 helburu operatiboa:

– 2. zuzentaraua, testu berria: “Organo kudeatzaileak lur gutxiko larreen aprobetxamendua baldintzatuko du, haien galera eta narriadura saihesteko. Lur horietan zelaian eragin txikiena duten abere espezien larratzea sustatuko da, eta, gainera, abere-zama txikiarekin”

– 3. zuzentaraua, testu berria: “Eskumena duen organo kudeatzaileak ezarri beharreko in-gurumen baldintzen eta neurri zuzentzaileen helburu izango da babes berezipeko araubideari lotutako larre eta lahardietan (Europar Batasunaren Intereseko Habitatak eta lehentasunezkoak) eragina minimizatzea”

3. azken helburua / 3.1 helburu operatiboa:

– 1. zuzentaraua. Aldatu egiten da testua, eta jarduera gisa sartzen da: “Aldi berean egingo dira urteroko erroldak, beste autonomia erkidego batzuekin koordinatuta, nazioko estrategia eremuan, ugatzaren banaketa area zehazteko”

4. azken helburua / 4.2 helburu operatiboa:

– 2. zuzentaraua, testu berria: “Istil berriak sortzean edo daudenei eragiten dieten jarduerak egitean, saihestu egingo dira urlehortarrentzat kaltegarrienak izan daitezkeen sasoiak”

– 4. zuzentaraua. Aldatu egiten da testua, eta jarduera gisa sartzen da: “Urlehortarren populazioak nahastea eta haien beren ugaltze tokietara heltzea eragozten duten jarduerak identifikatzea eta saihestea”

4. azken helburua / 4.3 helburu operatiboa:

– 2. zuzentaraua. Aldatu egiten da testua, eta jarduera gisa sartzen da: “Hobiak eta beste egitura batzuk definitzea eta eraikitzea, urlehortarrek elkartzera bideratuak; hala nola, irteera arrapalak eta albo ihesbideak”

5. azken helburua / 5.1 helburu operatiboa:

– 1. zuzentaraua, testu berria: “Prozesuak ebaluatzean, animaliei buruzko azterlanek kontuan izango dituzte kiropteroentzako sasoi zaurgarrienak, hau da, ugalgaraia eta migratze sasoiak”

5. azken helburua / 5.2 helburu operatiboa:

– 2. zuzentaraua, testu berria: “Baso helduen kudeaketari, lahardi eta larreak mantentzeari, baso eta erreka-ondoak sasiz garbitzeari eta kiropteroentzako habitat egokiak garbitzeari buruzko zuzentzarau guztiak beteko dira”

– 4. zuzentaraua, testu berria: “Oso eskueran dauden koloniak edo babeslekuak antzematen badira, unean uneko eta beren beregiko prebentzio neurriak hartuko dira kontuan; besteak beste, zulook ixtea”

– 5. zuzentaraua, testu berria: “Kontuan izango dira kiropteroen ekologia eskakizunak egitura berriak eraikitzean eta KBEko eremu barruko azpiegitura edo eraikinak edo kultura ondare direnak zaharberritzeko jardueretan. Kiropteroen koloniak daudenetan, ugalgaraian (maiatza eta abuztu artean, biak barne), debekatuta egongo da eraikinak zaharberritzea eta teilaberritzea”

6. azken helburua / 6.4 helburu operatiboa:

– 1. zuzentaraua, testu berria: “Jaki pozoitsuak erabilera antzematen bada, kontuan hartuko dira “Natura ingurunean jaki pozoitsuak legez kanpo erabiltzearen aurkako nazioko estrategian” xedatutako neurriak.

**Ángel María Baquedano Iñiguez**

Erroeta herriko auzotar Angel María Baquedanok argudiatzen du eragindako herrietako pertsona gehienek informazio gutxi dutela KBE izendatzeak herritarrengan izango duen eraginari eta kudeaketa zuzentzarau eta neurri horiek ezartzeari buruz. Horren harira esan behar

jendaurreko informazioaz gain “Kudeaketa zuzentarau eta neurriak” agirian jasotako neurri edo jardueren artean eragindako herritarren intereseko ingurumen informazioa argitaratzera eta zabaltzera eta KBEko inguruko herriak sentsibilizatzeko kanpainak egitera bideratutako zenbait jasotzen dela.

Alegatzaileak, halaber, adierazten du nekazaritza eta abeltzaintza jardueraz gain eragin eremuko herrietan badirela, murriztuak izanez gero, konpentsatu beharreko beste zenbait jarduera; eta alegazio idazkiko zenbait puntutan eskatzen da inguruko herritarrek ez dezatela jasan behar izan natura inguruko kontserbazioaren zatirik handiena. Horiek horrela, 40. neurria, kudeaketa laguntzeko bitartekoen paragrafoa, hain zuzen ere alde aurretik plazaratutako beste alegazio batzuk direla-eta aipatutako 6.3 helburu operatiboa, beste jarduera horiek jakitera bideratutakoa da, ez nekazaritzakoak ez abeltzaintzakoak, bestelakoak baizik. Izan ere, jakin nahi du kudeaketa zuzentarau eta neurri horiek onartzeak beste jarduera horietan izan dezakeen eragina, hots, errentan ekar dezakeen galera, galera hori kuantifikatzeko eta hura konpentsatuko duten bitartekoak jartzeko. Horrez gain, hasiera batean onartutako agiriari, zonako gizartea eta ekonomia hobeto ezagutzeko beste zuzentarau eta neurri batzuk gehitzen zaizkio, bai eta ingurumena berreskuratzeko administrazio publikoei egitea dagozkien beste neurri batzuk, ere.

Eskatu egiten da, halaber, zuzentarauek eta neurriak kaltetuak egoki konpentsatzeko balio izateaz gain, zona garatzeko ere balio dezatela. Uste da KBE izendatzeak, ingurumena kontserbatzeko eta hobetzeko neurriak hartzeak eta zonako ingurumen balioak jakinarazteak berekin ekarriko dietela zonako gizarteari eta ekonomiari biztanleek, gehitxoago edo gutxitxoago, aprobetxatu ahal izango dituzten onurak.

Basogintza jarduerak direla eta, Angel Maria Baquedanok eskatu du berma dadila egur hilen aprobetxamendua, inguruan bizi diren pertsonen etxeak egurrez hornitzeko, baliabide hori oso baita garrantzitsua oso goi dauden eta negu luze eta gorriak jasaten dituzten herrietan. Eskaera horren harira uste da egurraren aprobetxamendu antolatu eta jasangarria (ezarritako administrazio prozeduren arabera) bateragarria dela ingurumena eta bertako habitat eta espezieak eta, oro har, Entziako KBE kontserbatzeko helburuekin. Horiek direla eta, hona hemen “Kudeaketa zuzentarau eta neurriak” agirian nabarmendu daitezkeen neurriak: “Sustatu egingo dira ohiko aprobetxamenduak (zura, egurra eta larreak) kontserbaziorako ezinbesteko gisa” eta “Egur hil eta gurtarrastoen aprobetxamenduak ezartzen diren egur hilen balioen orientabideen mende egongo dira”.

Azkenik, alegazioan, hurrengo neurria dela eta, kezka bat azaltzen da: “Kiropteroen ekologia eskakizunei egokituak zaizkie egitura berrien eraikitzea eta KBEko eremu barruko azpiegitura edo eraikinak edo kultura ondare direnak zaharberritzeko jarduerak. Manu horrek hau ere gehitzen du: kiropteroen koloniak daudenetan, ugalgaraietan (maiatza eta abuztu artean, biak barne), debekatuta egongo da eraikinak zaharberitzea eta teilaberitzea.” Aurkeztutako alegazio idazkian adierazten da, zonako negu luzearen ezaugarriak direla eta, eragin eremuko eraikin eta etxebizitzetan aipatutako epez kanpo egiten diren obrak garestiagoak izango direla, bai eta, zenbaitetan, egin ere ezin izango direla egin.

Aurretik adierazitakoarekin bat etorritik, aldatu egin da zuzentarau horren testua, Natura Ingurumeneko eta Ingurumen Plangintzako Zuzendaritzaren alegazioa kontuan hartzeko Era berean, kontuan hartuz Angel Maria Baquedanok adierazitakoak arrazoizkoak direla, egoki jotzen da ezinbesteko gutxienera mugatzea obrak egiteko epea; hau da, epe hori ez dadila zertan izan maiatza eta abuztua (biak barne) bitartekoa. Horiek horrela, testu hau sartzen da: “Kontuan izango dira kiropteroen ekologia eskakizunak egitura berriak eraikitzean eta KBEko eremu barruko azpiegitura edo eraikinak edo kultura ondare direnak zaharberritzeko jardueretan. Kiropteroen koloniak daudenetan, ugalgaraietan, debekatuta egongo da eraikinak zaharberitzea eta teilaberitzea. Horrelakoetan, organo kudeatzaileari jakinarazitakoan, epe zehatza zehaztuko da”.

#### **Entzia eta Iturrietako Partzuergo Orokorra**

Partzuergoak zenbait alegazio aurkeztu ditu. Haietako lehenak hauek ditu aztergai: larratze egutegia KBE, abere zama eta aprobetxagai diren lurrak. Alegazioan adierazten da

partzuergoaren kudeaketak eta larratze egutegiak orekan eusten dietela baliabideen eta natura habitaten kontserbazioari eta herritarren ekonomia eta gizarte beharrei. Hau da, partzuergoak esaten du, erabakiak hartzean, kontuan izan behar direla gizarte irizpideak, lehen sektoreak egoera zaila bizi du eta.

Horren harira esan behar da, hala dela. Izan ere, larratzeak aspaldi-aspalditik funtsezko gizarte eta ekonomia garrantzia duen KBE batean, eta kontuan hartuz larreen aprobetxamendua eta habitaten kontserbazioa orekan izan direla, onartu egiten da funtsezkoa dela babestutako naturagunearen kudeaketak aintzat har ditzala natura habitaten babesa ("Habitat" en zuzentzarauaren eta estatuan eta erkidegoan hura garatzen duten araudien helburu nagusia) eta natura baliabideen aprobetxamendu antolatua. Horrako hori KBEren organo kudeatzaileak zehatz aztertu eta jarraitu beharreko alderdia da. Ideia hori indartu egiten du "Kudeaketa zuzentzarau eta neurriak" agirian bertan jaso daitezela Mendi Publikoen Antolamendu Plan egokian aztertuak izan daitezen aurreratxoago aipatutako neurria eta natura ingurua kontserbatzeko hartutako beste zenbait: "Ohiko aprobetxamenduak (zura, gurra eta larrea) sustatuko dira kontserbaziorako ezinbesteko erabilera gisa".

"Zuhaitzi bilakatzekotan dauden lahardi eta larreen azalera identifikatuko da eta, hala behar bada, zuhaitzi bilatzeko bidean daudenak kontserbatzeko neurriak definituko dira" izeneko neurria dela eta, partzuergoak uste du lahardietan, zenbait tokitan, sastrakak ebaki behar direla, bai eta, udaberrian, iralekuak garbitu ere, sastrakak jaten ari diren larre sailak handitzeko eta beste larratze inguru batzuetan azienda zama gehiegizkoa arintzeko. Baliabideen aprobetxamendu jasangarria eta Europar Batasunaren Intereseko Habitaten babesa, Habitaten Europako zuzentzarauak behartua, dela eta, sastraka kentze selektibo horiek baimenduta daude "Kudeaketa zuzentzarau eta neurriak" (2.2 helburu operatiboa) agirian xedatutakoaren arabera. Dena den, lan horiek egitean baldintza batzuk bete behar dira, KBEren kontserbazio helburua betetzen dela bermatzeko.

"Mugatu egingo da lur gutxiko larreen aprobetxamendua, eta horietan ardiak, eta horiek ere zama txikian, baino ez dira onartuko" zuzentzaraua dela eta, adierazten da, Baso eta larre jasangarrien antolamendu Planean ezarritakoarekin bat etorritik, larre aprobetxamendua beste espezie batzuei ere aitortu ahal izango zaiela, ingurua birsortu dela irizten denean. Neurri hori beste neurri batzuekin osa dadila eskatzen da. Horiek horrela, eskatzen da beste larre batzuk gehitzeko, partzuergoko eta KBEko beste inguru batzuetan sastrakak kenduz; eta, halakorik egiterik izan ezean, eskatzen da debekatutako espezieetako ganadu jabeentzako konpentsazio neurriak onar daitezela.

Horren harira, Natura Inguruneke eta Ingurumen Plangintzako Zuzendaritzaren alegazioan oinarrituta, eta kontuan izanda partzuergoaren alegazioa, zuzentzarau horrek testu hau izango du azkenik: "Organo kudeatzaileak lur gutxiko larreen aprobetxamendua baldintzatuko du, haien galera eta narriadura saihesteko. Lur horietan zelaian eragin txikiena duten abere espezieen larratzea sustatuko da, eta, gainera, abere-zama txikiarekin". Natura Inguruneke eta Ingurumen Plangintzako Zuzendaritzari jakinaraziko zaio idazketa berri horren proposamena, eta eskatuko zaio egoki zuzen dadila Eusko Jaurlaritzak horren harira eta behin-behineko onartu duen araudia.

Kontuan izan behar da zuzentzarau hori lur gutxiko lursailei ezartzen zaiela, behin betiko gal ez daitezen lursaila bera eta haren natura balioa eta larre ondarea. Ez da, beraz, KBEko larre guztiei aplikatzen zaien zuzentzaraua. Horrez gain, eskuratutako larratze eskubideen galera badakar, konpentsatu egingo da lortu gabeko irabazia, eta beste larre lursail baliokide batzuk zehaztuko dira, baldin eta zehazte hori KBE izendatzea dakarren kontserbazio helburuekin bateraezina ez bada. Dena den, kontuan hartu behar da hasiera batean onartutako agiriak jasotzen duela, 2.2 helburu operatiboan, irak estalitako inguruak larretarako berreskuratzea helburu duen zuzentzarau bat.

Sai zuriaren, belatz handiaren, arrano beltzaren eta hontz handiaren KBeko troketako habia inguruak eta horientzako eta beste hegazti harrapari batzuentzako interes gune eta arloak mugatzeko "Kudeaketa zuzentarau eta neurriak" agiriaren 18. jarduera dela eta, Entziako Partzuergoak eskatzen du ohiko erabilerak mugatzen dituzten neurri horiek konpentsazio neurriak jaso ditzatela. Horren harira esan, Euskal Herriko Natura Babesteko Legeak bermatu egiten duela eskuratutako erabilera eta eskubideen errenta murrizketa balioesteko eta konpentsatzeko mekanismoak ezartzea (2., 23. eta 36. artikulua). Mekanismo horiek babes neurriek kaltetutako zernahi pertsonak eska ditzake. Errenta murrizketa balioesteko eta konpentsatzeko mekanismoei buruzko gogoeta hori bera egin daiteke partzuergoak 36. neurria dela-eta egiten duen alegazioari buruz. Neurri horrek aipamen egiten die kiropteroen habitat garrantzitsuetan turismo, basogintza, kirol eta beste jarduera batzuek duten eragina ebaluatzeko azterlanei.

Bestalde, KBE gunea eta haren ingurumen balioak identifikatzen dituzten seinaleak jartzeari buruzko 46. neurria dela eta, egoki jotzen da Entzia eta Iturrietako Partzuergoak, alegazioan eskatzen duen bezala, parte har dezala haiek jartzeko tokiak hautatzen eta haien edukiak zehazten.

Azkenik, leheneratze eta kontserbatze neurriak aplikatzeko eskumena duten erakundeekin batera "Batzorde Tekniko Iraunkor" bat sortzea planteatzen duen 8.1 helburu operatiboa dela eta, partzuergoak eskatzen du batzorde horretan ordezkari izatea. Horren harira, kontuan izanik helburuak zehaztea Eusko Jaurlaritzaren eskumen dela, Eusko Jaurlaritzako Natura Ingurumeneko eta Ingurumen Plangintzako Zuzendaritzara bidaltzen da alegazioa.

Horregatik guztiagatik, entzunaldiko izapide iraun duen bitartean egindako ohar eta ekarpen guztiak kontuan hartuta, Diputatuen Kontseiluari proposatzen zaio behin betiko onar dezala "ES2110022-ENTZIA" BGL kontserbatzeko eta hango espezieen habitatan narriadura eta espezieen beraien asaldura saihesteko "Kudeaketa zuzentarau eta neurriak" agiria.

#### ERABAKITZEN DUT

LEHENENGOA. Behin betiko onartzea "ES2110022-ENTZIA" BGL kontserbatzeko eta hango espezieen habitatan narriadura eta espezieen beraien asaldura saihesteko "Kudeaketa zuzentarau eta neurriak" agiria.

BIGARRENA. "Kudeaketa zuzentaruak eta neurriak" agirian jasotako kudeaketa neurriak gauzatzeko zuzkidura ekonomikoak kasuan kasuko aurrekontuekin onartuko den aurrekontu erabilgarria egotearen baldintzapean daude, eta, edozein kasutan ere, agiri horretako kalkulu ekonomikoa 92/43/CE Zuzentaruaren 8. artikuluan aipatutako kofinantzaketa komunitarioari dagokionez beharrezko irizitakorako egiten da.

HIRUGARRENA. Erabaki hau jakinaraztea alegazioak aurkeztu dituzten administrazio, erakunde eta interesdun eta/edo eragindako bakoitzari.

LAUGARRENA. Erabaki hau jakinaraztea Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politikako Sailari, jakinaren gainean egon dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan.

BOSGARRENA. Erabaki hau ALHAOn argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko ekainaren 2a

*Diputatu nagusia*

**JAVIER DE ANDRÉS GUERRA**

*Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua*

**MARTA RUIZ CERRILLO**

*Ingurumen eta Hirigintza zuzendaria*

**BELÉN ECHEVERRÍA GOITIA**